

2024/2025 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 7tik 23ra** (biak barne) izango dela **2024-2025 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea. Matrikulatzeko hitzordua hartu behar da honako [galdetegia](#) betez. [Informazio gehiago...](#)**



DBH2-ko ikasleen proiektua

Kaixo denoi,

DBH2. mailako ikasleak gara eta Proiektu komunitarioko ikasgaien lanketa bat burutzen ari gara Animalien Babeslekuari laguntzeko, bertan bizi diren animalien bizimodua hobetzeko hain zuzen; horregatik laguntza eskatu nahi dizuegu.

Aterpetxean bizi diren animaliei hainbat gauza falta zaizkie eta material-bilketa bat egiten hasi gara. Material hori ondorengoa da: ogi gogorra, egunkari zaharrak, kuxinak, mantak eta animalien jostailuak.

Proiektua aurrera eramateko, hainbat ekintza burutzen ari gara: zozketa-txartelak saltzen ari gara, hainbat sentsibilizazio saio egin ditugu ikastolan eta herrian ere mahai informatibo bat jarriko dugu. Horretaz gain, galdetegi bat prestatu dugu sentsibilizazioa ere herrian zehar zabaltzeko. Galdetegia betetzeko [hemen klikatu](#), asko eskertuko genizuke hori betetzeko tartetxo bat hartuko bazenu.

Material-bilketari dagokionez, kaxak jarrita ditugu ikastolan (LH eta DBH eraikinetan), Sutegin, Kiroldegian, BM-n eta Eroskin. Kaxa horiek otsailaren 8an kenduko ditugu, beraz, ez galdu denborarik eta ekar ezazue ahal duzun hori ahalik eta lasterren, bertako animaliek asko eskertuko dizuete!

Mila esker!

DBH 2-ko ikasleak

Elurretara irteera

Egun bateko eski irteerara joateko gutxieneko haur kopurua ez denez osatu, ez da egun bateko irteerarik egingo. Nahi izanez gero, izena eman zenutenok bi eguneko irteerara joan zaitezke **otsailaren 9** baino lehen [galdetegi hau](#) betez gero. Prezio diferentziaren (170 €) ordainagiria bertan atxiki beharko da. Ez joatea erabakiz gero, dirua itzuliko zaizue.



Bi egunetarako irteerara doazen haurren familiekin **bilera** bat egingo da **otsailaren 15ean**, osteguna, **16:45ean** Udarregi Ikastolako jangelan. Bertan, irteerari buruzko zalantza guztiak argitzen saiatuko gara.

Xake topaketa

Usurbilgo Udalak, aurten ere, otsailerako XAKE TOPAKETA prestatu du, hobeto esanda, TOPAKETA pare antolatu dugu.

Otsailaren 16an, 17:00etan, LH 1-2-3ko haurrentzako saioa izango da.

Otsailaren 23an, 17:00etan, LH 4tik gorako haur eta gaztetxoentzako saioa izango da (izen ematea oso ugaria bada, bi talde egingo ditugu).

Izen ematea jada zabalik dago Sutegi Liburutegian.



Treba Gurasoen tailerra

Usurbilgo gaztelekuak, Udaletxearekin batera Treba Gurasoen tailerra antolatu du, haur eta nerabeen emozioen inguruan hitzaldi bat burutuko da.

Eguna: Otsailak 22

Ordua: 17:30etan

Lekua: Potxoenean

[Informazio gehiago...](#)



HAUR-HEZKUNTZA

Inauteriak

❖ Haur Eskola (0-3):

Gaur, Otsailak 9, goizeko 10:00etan inauteri-festa ospatuko da Haur Eskolako patioan. Haurrek hezitzaileek aldeztu aurretik esandako jantziekin etorri beharko dute Haur Eskolara. Jaialdia ikuslerik gabe egingo da.



❖ Haur Hezkuntza (3-6):

Gaur, otsailak 9, goizeko 10:30etan inauteri festa egingo dugu Mikel Laboa plazan, eguraldi txarra egingo balu ikastolako frontoian egingo genuke.

Goizean haurrak zakuarekin jantzita etorriko dira gelara eta „nahi duena, galtzerdi-abarkak oinetan jantzita. Aurten berrikuntza bezala, gela bakoitzean AURPEGIAK MARGOTZEKO TXOKO bat jarriko dugu 9:00etatik 9:45etara. Beraz, gurasoek aukera izango duzue norbere haurrari eta gainontzekoei aurpegia margotzeko. Nahi duenak etxetik margotuta etortzeko aukera ere izango du.

Eguerdian haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala. OHARRA: Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.

LEHEN HEZKUNTZA

LH-ko material-kobrantza

2023/24 ikasturteko **LH-ko eskola-materiala** otsailaren 16an kobratuko dela jakinarazten da, hileko kuotarekin batera.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €** izango da.



Zorriak LH2

LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA

